



IKASTETXEEI HEZKUNTZA SAILAREN KOMUNIKAZIO-OHARRA

Maiatzaren 14an ikastetxeei bidalitako, **2019-2020 ikasturtearen amaieran, Euskadiko Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan koronabirusaren (SARS-COV-2) aurrean jarduteko protokolo orokorran**, 7.4 puntuan, Hezkuntza Sailean Jarraipen Batzordea eratzea jasotzen da, ikastetxeetako Laguntza- eta jarraipen-batzordeek helaraz ditzaketen zalantzak eta gorabeherak aztertu eta erantzuteko. Batzorde horiek ikastetxeetara itzultzeko prozesuan bermeekin laguntzeko eratu dira.

Aurreikuspen hori betetzeko:

1. Hezkuntza Sailaren Jarraipen Batzordea eraten da.
2. Batzorde hori honako hauek osatuko dute: Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariak, Ikuskatzaile nagusiak, Hezkuntza Berriztatze zuzendariak, Azpiegitura, Baliabide eta Teknologia zuzendariak eta Osasun Saileko ordezkari batek.
3. Eginkizun nagusia ikastetxeetako Laguntza- eta jarraipen-batzordeek prebentzio-neurriei, antolaketa-neurriei eta/edo jarduerak garatzeari buruz planteatutako arazoak edo zalantzak erantzutea eta ebatzea izango da. Horretarako, beti hartuko dira kontuan Osasun Sailak eta Prebentzio eta Arriskuen Zerbitzuak emandako irizpideak, bai eta Hezkuntza Sailak ezarritako jarraibideak ere.
4. Era berean, kasuan kasuko esparrua ezagutzen duten pertsona guztiei dei egin ahal izango zaie Batzordean puntualki sartzeko, sortzen diren arazoei hobeto erantzuteko aholkuak eman ditzaten.
5. Batzorde horrek, Hezkuntza Lurralde bakoitzeko ordezkariekin lankidetzan, EAEko ikastetxe publiko guztiei erantzun **koordinatua** ematen zaiela zainduko du.
6. Ikastetxeetako Laguntza- eta jarraipen-batzordeen kontsultak Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariari zuzenduko zaizkio, Saileko Jarraipen Batzordeko presidente den aldetik.
7. Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariak behar duen eta/edo zehazten duen guztietan bilduko da batzordea, edo, hala badagokio, batzordeko kideren batek eskatzen duenean.